

Tolosaldeko Emakumeen Etxeak badu irudia

Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Eguna baliatu dute aurkezteko; Tolosako Udalak abiarazitako lehiaketa Oihana Pelaezen diseinuak irabazi du; urte hasieran zabalduko dute etxea // 5

Circet Cableven enpresako langileak, greba mugagabea

Villabonako lantegian grebari ekin zioten hilaren 21ean; agindutako soldata eta aparteko orduak kobratzea eskatzen dute, besteak beste // 4

«Euskara eremu eta klase sozial guztietan zegoen presente»

HARITZ AZURMENDI
FILOSOFOA

'Euskararen historia soziala Tolosaldean' ikerketaren bigarren zatia aurkeztuko du albizturtarrak gaur arratsaldean, Villabonako Subijana etxean // 3

Jokin Altunak ez du bihar binakako partida jokatu

Eskuin eskua minduta du, eta txapelketako lehen partida ez jokatzea erabaki du; Peña II.ak irabazi egin du eta Jakak, Elizegik eta Iztuetak galdu egin dute // 7

Ikuskizun polita Irristaka Indoor Sari nagusian, Usabalen

Tolosako Irristaka patinaje taldea gustura dago aurtengo txapelketak eman duenarekin; podiumeko lau postu lortu dituzte tolosarrek // 6



ELA eta LAB sindikatuak deituta elkarretaratzea egin zuten Asuncioneke langileek larunbatean. ENERITZ MAIZ

Subrogatuak izatea eskatu dute Asuncion Klinikako langileak

Langileen erosteko ahalmena bermatuko duen hitzarmena adosteko borondatea eskatu diote enpresari negoziazio prozesuan; ospitale berriaren inguruko informaziorik eza salatu dute // 4



Usabal Auzoa, 25 · **TOLOSA**



Abenduak 3tik aurrera zabalik!

Informazio gehiagorako eta erreserbak egiteko: Tel.: 943 67 26 13

Eskualdeko demografia datuak, herriz herri

Tolosaldeko eta herriz herriko jaiotza, heriotza eta migrazio datuak bildu ditu 'Ataria'-k; eskualdean 2001tik 2021era %13an egin du gora biztanleriak

Erredakzioa

EITB taldeak eta Tokikom toki-ko komunikabideen sareak sinatutako Saretzen lankidetzak akordioari esker, eskualdeko herriz herriko 2001 eta 2021 urteen arteko demografia datuak argitaratuko ditu TOLOSALDEKO ATARIA-k gaur. Demografiak herrietako jaiotze eta hilkortasun tasak, eta migrazioa hartzen ditu kontuan, eta herriz herriko datu horiek bildu ditu ATARIA-k akordio horri esker.

Ataria.eus webgunean daude datu guztiak Demografia atalean, eta horrekin batera datozen bi egunkarietan datuei erreparatuta nabarmendu beharreko hainbat herritako adibideak jasoko ditu.

BIZTANLERIA

Tolosaldeko datu orokorrari erreparatuta azken hogeitaz urteetan (2001-2021) eskualdeko biztanleria %13an igo dela ikusi daiteke. 2001ean 42.544 biztanle zituen eta 2021ean berriz, 48.058.

Tolosaldeko herri bakoitza aztertzen hasita berriz, ia herri guztietan igo da biztanleria, nahiz eta handienek gorabehera batzuk izan dituzten.

Hogeita zortzi herrietatik 26tan igo da eta bik berriz, biztanle gutxiago dituzte: Amezketak 23 eta Belauntzak 11 gutxiago. Ehunekoa kontuan hartuta berriz, ondorengo bost herriak dira gehien igo direnak: Irura %215; Baliarrain %176; Orendain %158; Larraul %148; eta Aduna %142.

JAIOZAK ETA HERIOTZAK

Tolosaldeko jaiotza eta heriotza datuak aztertuta ikusi daiteke, 2001etik 2016ra jaiotza gehiago izan zirela heriotzak baino. 2017an berriz, jaiotza eta heriotzak parekatu ziren, eta hortik aurrera heriotzak gehiago dira, azken bi urteetan gainera, alde hori nabarmendu delarik.

Herriz herriko datuei buruz, esan daiteke eskualdeko hogeita zortzi herrietatik zazpitan ez dutela eskualdeko joera orokorra jarraitzen, izan ere, 2021ean, herri horietan, jaiotza gehiago izan ziren heriotzak baino. Hauek dira herri horiek: Anoeta -26 jaiotza eta 13 heriotza-, Irura -16 jaiotza eta 7 heriotza-, Aduna -4 jaiotza eta heriotzarik ez-, Albiztur -3 jaiotza eta heriotza bat-, Belauntza -2 jaiotza eta heriotza bat-, Bidania-Goiatz -4 jaiotza eta 3 heriotza-, Ikaztegieta -4 jaiotza eta 3 heriotza- eta Orendain -2 jaiotza eta heriotza 1-.

ADIN TARTEAK

Biztanleriaren adin tarteari erreparatu dio ATARIA-k era berean, eta horretarako hiru zatitan banatu dira herritarrak; 20 urtez azpikoak, 60tik gorakoak eta tartekoak. Horiek horrela, eskualdeko biztanleria iaz, horrela banatzen zen: 20-59 urte artekoak dira biztanleriaren zatirik handiena, erdia pasatxo (%51); ondoren, 60 urtetik gorakoak (%29); eta azkenik, 20 urtez azpikoak (%21).

Datu horiek herrietara jaitsiz gero, herrietako joera ere, eskualdekoaren berdina dela on-

dorioztatu daiteke ia herri guztietan. Hala ere, badira zazpi, 20 urtez azpikoak 60tik gorakoak baino gehiago dituztenak: Aduna, Alkiza, Baliarrain, Irura, Larraul, Oresa eta Orendain. Herri gazteenak Baliarrain, Aduna, Irura eta Aduna dira. Herri zaharrenak aldiz, Hernialde, Ibarra eta Belauntza dira.

MUGIMENDUAK

Era berean, eskualdeko herrietan azken 20 urteetan izan diren biztanleriaren mugimenduak ikusi daitezke, inmigrazioak eta emigrazioak kontuan hartuta. Tolosaldeak izandako emigrazio eta inmigrazio kasuak aztertuta, 2021. urtean eskualdeak ez zuela aldaketa handirik jasan ikus daiteke. Eskualdetik joan zirenak 2.132 herritar izan ziren eta aldiz, etorri zirenak, 2.400 herritar; beraz, ondorioztatu daiteke, beste herrialdeetatik ia 300 herritar berri jaso dituela eskualdeak.

KONPARAKETA INTERAKTIBOA

Datuak ezinbestekoak dira herrien bilakaera ikusteko, baina irudiak ere garrantzitsuak dira, eta hori dela eta *Ataria.eus* webgunean Tolosaldeko 28 herrietako herriguneei hirigintza aldetik izan duten aldaketak ikusi daitezke.

Konparaketa interaktiboa egiteko webgunean dauden argazkietako borobiltxoak ezker eta eskuin mugitu behar dira, eta horrela herriek 2001. urtean zuten eta 2021. urtean duten itxura konparatu ahal izango da.



Besteak beste, Hernialdeko datuak aztertuko ditu 'Ataria'-k. J.M.



Ikaztegieta 2001 eta 2021 urteetako hirigintza bilakera. ATARIA



Tolosaldeko demografia
2001-2021.

Lanketa bereziak eta
grafiko guztiak, hemen:



«Euskara oso presente zegoen XIX. mendean Tolosaldean»

HARITZ AZURMENDI FILOSOFOA

'Euskararen historia soziala Tolosaldean' ikerketa egiten ari da filosofo albizurtarra; hiru zatitan banatu du lana; iaz aurkeztu zuen lehen zatia, eta gaur aurkeztuko du bigarrena, 18:30ean, Villabonako Subijana etxean



JOSU ARTUTXA

Irati Saizar Artola

Galtzaundi Euskara Taldean sortutako ideia bati tiraka ari da lantzen euskararen historia soziala, eskualdeko mugetan, Haritz Azurmendi (Albiztur, 1991). Joseba Tapia musikariarekin batera aurkeztuko du bigarren zatia, gaur, 18:30ean, Villabonako Subijana etxean.

Ikerketaren lehen zatian 1936az gerozko egoera aztertu zenuen. Ze garaitan kokatu duzu bigarrena?

1936tik hasi eta ehun urte atzera eginda aritu naiz. Lehen gerrate karlistatik 36ko gerrara, hau da, 1833tik 1936ra.

Urte asko dira. Hartutako lana ere halakoa izango zen.

Ikerketa planteatzerakoan konturatu ginen eremu zabala hartzen ari ginela, baina baita ere pentsatu genuen aukera aprobatxatu behar zela, ahal den guztia arakatzen hasi eta gerora bideak zabalduta uzten hasteko.

Tolosaldera mugatutako lana ari zara egiten.

Hori zen ikerketaren asmoa, bai. Nahitaez, orde, beti jotzen duzu plano nazionalera edo herri konkretuetara. Eskualdeko zerbait garatzeko euskarriren bat topatzen duzunean, nazio mailako erakundeek laguntza eman badute, erakunde horien testuingurua ere kontatzen duzu, eta al-diz, eskualdeko logikak ulertze-ko, herriren bateko gertakari

konkretuak interes bereziren bat badu, horri ere garrantzia ematen diozu.

36ko gerra aurretik nolako egoera zuen euskarak Tolosaldean?

XIX. mendea eta XX.aren hasiera nahiko kontraesankorrak izan daitezke lehen begiratuan. Alde batetik, denok ezagutzen ditugun egiturazko aldaketak daude: industrializazioa, trenak eta bestelako garraiobide modernoek ekarri zutena, bilakaera demografikoa... Baina, badaude 100 urtean ia ezer aldatu ez diren eremuak: elizak indar handia du, presentzia sinboliko handia dauka; baserri giroa ere herrietan oso sartuta dago, bai landa eremuko herrietan eta baita Tolosa edo hiriago diren lekuetan ere. Orokorrean, esango nuke, euskara oso presente zegoela Tolosaldean XIX. mendean eta XX. mende hasieran.

Gero, eremuka aldatzen dela ere ikusi dut, klase sozialei begira ere zertxobait aldatzen da, baina, esango nuke, bai eremu guztietan, bai klase sozial guztietan euskara presente zegoela, indar edo funtzio desberdinekin.

Aurreko txandan elkarrizketa bidez jaso zenuen informazioa. Nola landu duzu orain?

1936 baino lehen jaiotako jende gutxi dago testigantza emateko moduan. Bazeuden testigantza batzuk jasota, *Ahotsa.eus*-en, adibidez. Horiek hartu nituen,

eta gero, otsailean egin genuen Tolosako lehen ikastolaren mendeurreneko ospakizun hartan, 36ko gerra aurreko zenbait ikaslerekin iritziak trukatu nituen. Baina, batez ere, lan bibliografikoa eta artxiboko lana egin dut.

Nora jo duzu?

Gaur egun, artxibo dezente daude digitalizatuta, eta horrek aukera eman dit Tolosaldea bezalako eremu zabal hau bulegotik ikertzeko, banan bana herrietako artxiboetara joan gabe. Bestetik, batez ere kultur erakundetara jo dut, Eusko Ikaskuntza eta antzeko erakundeetako artxiboetara, hor ere informazio asko zegoelako, eta argazki eta antzeko elementuak lortzeko lana arduratuta zutelako.

Aurreko zatiarekin alderatuta, lan desberdina beraz.

Aurreko zatiak bizirik zegoen

jendearekin elkarrizketak izatea eskatzen zidan. Gainera, aurreko epealdia gehiago kontrolatzen nuen, aurreko ikerketetatik ezagunagoa zitzaidalako. 1833tik 1936rako epealdi hau ere ezaguna zitzaidan, baina testuinguru historikoan lan gehiago egitea eskatu dit. Ikerketa historikoak dira guztiak, baina lan ezberdina eskatzen dute, eta emaitza ere desberdina da. Azken honetan, beste ikertzaile askok egin dituzten lanez gehiago baliatu naiz, aurrez aurreko elkarrizketez baino.

Eta hirugarren zatirako ze asmorekin zabilta?

1833tik atzerakoari helduko diot. Pista batzuk badituz, eta batekin eta bestearekin hitz egitean seguru nago bestelako pista eta eremuak aterako zaizkidala ikeritzeko. Egia esan hau izango da

gutxien kontrolatzen dudan garaia, beraz, honetan ere testuinguru historikoa ikertu beharko dut lehenik, eta gero etorriko naiz eskualdera, emaitzen bila.

Hurrengo urterako prestatu nahi duzu?

Bai urtebete hartuko dut azken zatia ikertzeko. Eta behin aurkezpene eginda, ikerketa osoa zabaltzeko euskarriak eta bideak jorratzen hasiko naiz.

Gaurko aurkezpenean Joseba Tapiarekin ariko zara.

Ilusio handia egiten dit. Tapia etorriko da garai hartako bertsoak eta ondu zituen abestiak kantatzera. Ikerketa honen soinu banda izan dira disko horiek, nahi gabe ere atzean jarri eta askotan entzuten nituelako. Nire sermoia etengo du tarteka, bertso batzuk kantatzeko, eta luxua izango da.

zozketak

Atarikideentzat 2 sarrera bikoitz ditugu

FINALAURREKOA

BERTSOLARI
TXAPELKETA
NAGUSIA 2022

BILBO

Abenduak 3
Larunbata
17:00etan
Bilboko Bizkaia
frontoian

Atarikideentzat bi sarrera ditugu

GUZKOA GIPUZKOA
BASKET

Guuk Gipuzkoa Basket
VS
Movistar Estudiantes

Abenduak 7, asteazkena
19:30ean Donostiako
Angulas Aguinaga Arenan

Zozketan parte hartzeko osteguneko 11:00ak arte 943 65 56 95 edo Ataria.eus

Circet Cableven enpresan greban daude hilaren 21etik

«Kaleratutako langilea berriz hartzea» edota agindutako soldata eta aparteko orduak kobratzea eskatzen diote enpresari



ELA sindikatua Villabonako enpresako langileen egoeraren berri ematen. A. IMAZ

Erredakzioa Amasa-Villabona

Villabonako Circet Cableven enpresan greba mugagabea dauka pasatzen astelehenaz, hilaren 21az, geroztik. Bertako langileek baldintza «gizagabeak» salatu dituzte, eta besteak beste, «kaleratutako langilea berriz hartzea» eta kontratatzerakoan agindutako soldata eta aparteko orduak kobratzea exijitu dute.

ELA sindikatuak adierazi duenez, adostutakoa ez betetzeagatik ekin diote grebari: «jasaten ditugun abusu etengabeengatik, etengabeko mehatxuengatik eta langile bat, lan taldeko emakume bakarra, kaleratzeagatik».

Circet Cableven enpresak Vodafone konpainiarentzat egiten du lan, telefono kableak instalatzen edo konpontzen. Langileen esanetan, «950 euro» kobratzen dituzte hilabetea, oinarritzko soldata gisa. Horri, ordainsariak, «tranpa bat diren» ekoizpen-plusak eta asteburuetakoa lanordua gehitu behar zaizkie; «eta hala ere ez gara 1.500 eurora iristen kasu askotan», adierazi dute.

Greban dauden langileek lan jardunaldiak «gehiegizkoak» eta «gizagabeak» direla salatu dute: «Egunean 10 ordu edo gehiagoz aritzen gara lanean. Batzuetan bazkaltzeko ere ezin izaten dugu gelditu. Asteburuko guardia abisuak ostiralean bertan ematen dizkigute, eta beraz, ezinezkoa egiten zaigu lan bizitza eta familia bizitza bateratzea».

Horrez gain, asteburuetan lan egitea tokatzen zaienean «miseria» batengatik egiten dutela salatu dute; «eta gainera, lor dezakegun produkzio-plusaren erdia enpresak hartzen du».

Bestalde, materialarekin edozein galera izanez gero, nominatik kentzen dietela esan dute Circet Cableven enpresako langileek, eta prestakuntza ere euren soldatatik ordaindu dutela argitu dute: «Enpresak ez du lan egiteko tresna egokirik ematen, eskaintzen zaigun prestakuntza urria da, baliogabea ez esateren. Prestakuntza hori gure lanalditik kanpo egin dugu, azkenean».

BOST PUNTU

Villabonako enpresako langileek grebari amaiera emateko bost baldintza jarri dituzte mahai gainean. Batetik, «kaleratutako langilea berriz hartzea» exijitu dute. Horrekin batera, ezarritako lanaldiari egokitzen zaion lanegutegia osatzea, legez ezarritako atsedenaldiak errespetatzen dituen eskatzen dute.

Era berean, kontratatzerakoan agindu zitzaizen soldata kobratzea eskatzen dute, eta baita, behar izanez gero, aparteko orduak ere. Gainera, plusak kobratu ahal izateko «abusuzko baldintzak» ezabatzea nahi dute.

Bestalde, lan taldearen egonkortasuna bermatzea eskatzen dute, langile gehienek «sei hilabete baino gutxiagoko antzinatasuna» daukatela argudiatuz. Eta, azkenik, lan egiteko «tresna egokiak» izatea, eta beharrezko prestakuntza exijitzen dute.

Circet Cableven-eko langileek enpresa greba eskubidea «urratzen» ari dela ere salatu dute: «Gure lana egitera beste lurralde batzuetatik ekartzen ditu langileak. Argi utzi nahi dugu hori behar den lekuan salatu egingo dugula».

Asuncionekeo langileek negoziatzeko «benetako borondatea» eskatu dute

«Erosteke ahalmena bermatuko duen hitzarmena» adostu nahi dute; ospitale berriaren inguruan ezer ez dakitela salatu dute, eta langileak «subrogatuak izatea» eskatu dute



Herritar ugari batu zen larunbatean ELA eta LAB sindikatuak deitutako elkarretaratzera. E. MAIZ

Eneritz Maiz Tolosa

Tolosako Inviza enpresako, hau da, Asuncion Klinikako langileek, 2021etik hitzarmenik gabe jarraitzen dutela salatu dute. Negoziazioak martxoan hasi zituztela eta enpresak behin eta berriz ukatu dietela ELA eta LAB sindikatuak aholkulariei bertaratzeari adierazi; «enpresa, berriz, kanpoko aholkulari batekin joan da bilera guztietara». Egoera salatzeko elkarretaratzea egin zuten larunbatean ELA eta LAB sindikatuak deituta, eta TOPAK Tolosaldea Osasun Publikoaren Aldeko Plataformak bat egin zuen deialdiarekin.

Langileek adierazi dutenez, «aurreko hitzarmenarekin gertatu moduan», negoziatzeko «ez dira fede onez egin», eta enpresaren helburu bakarra negoziatzeko «luzatzea» dela esan dute. Aurreko negoziazioan bost urte behar izan zituztela argitu dute, eta horregatik, «langileen erosteke ahalmena bermatuko duen hitzarmena» negoziatzeko «benetako borondatea» eskatu diote enpresari.

Langileen soldatei dagokien

nez, KPIaren erreferentziarekin ez dietela igoerarik bermatzen salatu dute: «planteatu digutenarekin, gero eta langile pobreak nahi gaituzte; orain artean, 2021eko %6,5eko KPIa eta 2022ko %7,3 kontuan hartuta, %13,8 galtzen ari gara», nabarmendu dute langileen ordezkariak.

LANGILEAK SUBROGATUAK IZATEKO ESKAERA

Bestalde, eskualdean ospitale publiko berri bat eraikiko dela jakin ostean, Asuncion Klinikako langileek kezka azaldu dute euren etorkizunaren inguruan: «plan funtzional horren edukia- ren berririk gabe jarraitzen dugu, ez dakigu ze ospitale mota izango den, eta bertako 328 langileekin zer gertatuko den».

Asuncion Klinikako «beharrezkoak ziren hobekuntzak» egiten ari direla kontatu dute, baina galdera bat ere luzatu dute bertako langileek: «Benetan beharrezkoa al da beste ospitale bat eraikitzea?».

Hori bai, Eusko Jaurlaritzari eta Tolosako Udalari eskualdeko ospitalea «%100ean publikoa»

izatea eskatu diote, eta «eskualdeko ospitale batek izan ditzakeen zerbitzu guztiak eman ditzala». Asuncionekeo 328 langileak, berriz, «subrogatuak» izan daitezela eskatu dute.

PLAN FUNTZIONALA

TOPA plataformak ere eskualdeko ospitale berriaren inguruko plan funtzionala publiko egitea eskatu du: «Hainbeste denbora esperoan egon eta gero, Tolosaldeko herritarrok duela hiru urte bezala gaude: ezertxo ere ez dakigu ospitale berriaren ezaugarriak buruz ez eta emango dituen zerbitzuei buruz ere».

Tolosako Udalari ere zuzendu zaio plataforma, eta esan du ez dela «onargarria» udalak ez eza gutzea ospitalearen plan funtzionala: «udala gardentasuna eta parte hartzea bultzatzen ari da, baina, Tolosaldearentzat hain garrantzitsua den gai batean erabateko ezjakintasunean dituen herritarrek; ez jakitea zer gertatuko den klinikarekin eta ezer ez egitea ezjakintasun horren aurrean eta herritarren informazio faltaren aurrean ez da onargarria».

Urte hasieran irekiko dute Tolosaldeko Emakumeen Etxea

Oihana Pelaezen diseinuak irabazi du Andragora eskualdeko emakumeen etxeko irudia aukeratzeko lehiaketa; Azaroaren 25ak herritarrak atera ditu kalera

Erredakzioa Tolosa

Pixkana Tolosaldeko Emakumeen Etxea, Andragora, gorpuzten ari da eta jada badu irudia. Oihana Pelaezen diseinuak irabazi du udalak abiarazitako lehiaketa eta diseinuaren «indar grafikoa, originaltasuna eta kalitatea» nabarmendu dute. Ekainean hasi zituzten emakumeen etxea egokitze lanak eta aurreikuspenen arabera 2023. urte hasieran irekiko dute.

Bost emakumez osatutako epaimahai batek aukeratu du Pelaezen irudia. Hain zuzen, emakumeen etxeko lantalde politiko-teknikoko eta komunikazio lantaldeko ordezkariak, Tolosako Udaleko Berdintasun Kontseiluko ordezkari batek, Tolosako Udaleko teknikari batek eta diseinu grafikoan zein arte ederraren arloko profesional batek. «Diseinu garbi, originala, landua eta kalitate handikoa izateagatik» hautatu dute Pelaezen lana. «Andragora hitzak indar grafikoa handitu du Tolosaldeko Emakumeen Etxearen izen propio gisa identifikatzeko», esan du udalak.

Obrei dagokienez, udalak esan du aurreikuspenen arabera, 2023ko urtarrilerako amaituta egongo direla aurrealdeko lokala egokitze lanak. Atzealdeko lokaleko lanak, aldiz, otsailerako egongo dira bukatuta. Guztira, 600 metro karratu izango ditu etxeak eta hainbat espazio: harrera-gunea, egongela, areto nagusia, balio anitzeko gelak, bileta gelak, bulegoak... Hainbat zerbitzu eskainiko ditu, halaber: aholkularitza zerbitzuak (psikologikoa, juridikoa, laborala, sexualitatearen ingurukoa...) eta ahalduzko gune eta dinamika ere egingo dira. Emakumeentzako Jabetze Eskolaren ikastaroak, tailerrak eta bestelako jarduerak bertan egingo dituzte ere. Emakume sortzaileen gunea ere garatuko da eta baita behatoki kritikoa ere, azterketa laneta-



Oihana Pelaezek egin du Andragoraren irudia. ATARIA

rako. Halaber, ate irekien saioak, emakumeen etxeen arteko topaketak, tailerrak, ikastaroak, batzarrak, jarduera ludiko edo gastronomikoak (bazkariak, afa-riak...), jarduera kulturalak, kirol jarduerak, kaleko ekintzak edo ekimen solidarioak ere egingo dituzte.

AZAROAK 25

Indarkeria Matxistaren Aurkako egunean, Azaroaren 25ean, eman zuten irudi berriaren berri, hain justu eskualdeko kaleak aldarrikapenez bete ziren egunean. Tolosan herritar askok egin zuten bat Tolosako Asanblada Feministak deitutako manifestazioarekin. Emakumeek indarkeria matxista egunero jasaten dutela gogoratu zuten eta Tolosan aurten emakume bat baino gehiagok sexu erasoak sufritu izana salatu dutela nabarmendu zuten. Era berean, Felisa, Sara Pina Ieregi eta Maria Luisa Larrañaga ekarri zituzten gogora, hain zuzen, gizonezkoek aurten erail dituzten hiru emakumeak.

Indarkeria matxistak bere horretan jarraitzen duela esan zuten eta uda honetan «emakumeek jasandako kontrol sozial etengabea» gaitzetsi zuten. Abortua ekarri zuten gogora, era berean, eta Askabide klinikaren aurrean izandako protestak eta abortatzera doazen emakumeek jasaten duten jazarpena salatu zituzten. Bukatzeko gizonezkoei zu-

zendu ziren: «Makinaria horren guztiaren oinarriak zuek zarete indarkeria hori gorpuzten ari zaretenak. Hartu egoerak eskatzen duen ardura eta erantzukizuna. Azaleko diskurtsoek ez dute balio praktikan ezer ez bada aldatzen».

Tolosaldeko Itaiak ordu erdi lehenago egin zuen manifestazioa eta sozialismoa aldarrikatu zuten indarkeria matxistari aurre egiteko. Sistema kapitalistak indarkeria matxista hauspotzen duela eta zapalkuntza horri aurre egiteko errora joan behar dela esan zuten.

«Gaur egungo sistema kapitalistan ezinezkoa da indarkeria matxistarekin amaitzea, emakumeak zapalduta gaude eta sistemarentzat beharrezkoa da zapalkuntza horrekin jarraitzea», esan zuten.



SANANDRESAK BERROBIN

San Andres jaiak ari dira ospatzen Berrobin eta herenegun Dantzatu eta abestu emanaldia izan zuten. Gaur Emakumeak ahalduzko topaketa egingo dute, 17:00etan. LEYRE CARRASCO



OTEGI OMENDU DUTE

40. Nazioarteko Txotxongilo Jaialdiaren bukaera baliatu dute urte luzez Topic zentroko ardura izan duen Idoya Otegi omentzeko. Titirijai sortu zuen Migel Arretxerekin batera. TOPIC



POSTU UGARI AUKERAN

Nekazari eta artisau postuez bete zen herenegun Amezketa-ko Larrunarri frontoia. Izan ere, herriko kultur eskaintzaren barruan Amezketa-ko Ferie ospatu zuten, beste behin. L.C.

Laskorain ikastola

Laskorain Ikastolak 2023ko urtarrilaren 9tik martxoaren 31 arte irakasle hauek behar ditu, Bigarren Hezkuntzan lan egiteko:

1- Ingeleseko eta Gaztelaniako irakaslea (%85eko lanaldia)

2- Euskarako irakaslea (%75eko lanaldia)

Beharrezkoa da Bigarren Hezkuntzan lan egiteko irakaskuntza-masterra eta Euskararen C1 egiaztagiria izatea.

Curriculumak e-mailez bidali behar dira laskorain@ikastola.eus helbidera. Jasoko diren azken eguna: abenduak 4.

KIROL EMAITZAK

Areto futbola

BIGARREN B MAILA

11. jardunaldia	
Lauburu Ibarra	4
Pinseque	5

Sailkapena

1. Otxartabe	28p
2. Anaitasuna	27p
4. Lauburu Ibarra	24p

Hurrengo jardunaldia

E.D. Brunete (9) – Lauburu Ibarra (4)

HIRUGARREN MAILA

10. jardunaldia	
Laskorain – Tolosala	2-2

Sailkapena

1. Aurrera de Vitoria	26p
4. Laskorain	18p
10. Tolosala	13p

Hurrengo jardunaldia

Leioako Ibaraki (15) – Laskorain (4)
Tolosala (10) – Lagun Onak (11)

Eskubaloia

1. MAILA NAZIONALA

11. jardunaldia	
Tolos CF Eskubaloia	28
Trapagaran	23

Sailkapena

1. Helvetia Anaitasuna	20p
6. Tolosa CF Eskubaloia	14p
16. Elgoibar	3p

Hurrengo jardunaldia

Eibar Eskubaloia (4)
Tolos Eskubaloia (6)

1. LURRALDEKO SENIOR MAILA

9. jardunaldia	
Urola Construcciones Antio	25
Tolos CF Eskubaloia	23

Sailkapena

1. Zuhegan Orio Eskubaloia	13p
8. Tolosa CF Eskubaloia	7p

Hurrengo jardunaldia

Tolos Eskubaloia (8)
Zuhegan Orio Eskubaloia (1)

Futbola

1. MAILA NAZIONALA

11. jardunaldia	
Pradejon B – Tolosa CF	0-4

Sailkapena

1. Real Sociedad B	31p
14. Tolosa CF	6p
16. Aurrera de Vitoria	2p

Hurrengo jardunaldia

Tolos CF (14) – Dux Logroño B (9)

ERREGIONAL OHOREZKO MAILA

GIZONEZKOAK

12. jardunaldia	
Añorga – Tolosa CF	3-0

Sailkapena

1. Hernani	26p
13. Tolosa CF	15p
18. Mondragon	4p

Hurrengo jardunaldia

Tolos CF (13) – Zarautz (8)

ERREGIONAL OHOREZKO MAILA

EMAKUMEZKOAK

11. jardunaldia	
Tolos CF – Urnieta	1-0

Hurrengo jardunaldia

Beti Gazte (5) – Tolosa CF (13)

GORENGO MAILA GIZONAK

11. jardunaldia	
Tolos CF – Anaitasuna	1-2
Segura Goierri – Danena	3-3
Billabona – Aretxabaleta	1-0

GORENGO MAILA EMAKUMEAK

10. jardunaldia	
Aiztondo Neskide – Goierri G.	1-1

LEHEN MAILA ERREGIONALA

10. jardunaldia	
Intxurre – Idiazabal	1-3

Saskibaloia

EUSKAL LIGA, 1. MAILA

8. jardunaldia	
Leioa	43
Redline Mekanika TAKE	82

Sailkapena

1. Redline Mekanika TAKE	7-1
2. Atletico San Sebastian	7-1

Hurrengo jardunaldia

Redline Mekanika TAKE (1)
Urgatzi (4)

SENIOR EMAKUMEZKOAK

1. MAILA, BIGARREN FASEA

1. jardunaldia	
Atletico San Sebastian	45
Eguzkitza Sagardotegia TAKE	50

Sailkapena

1. Goierri Ayma	1-0
2. Eguzkitza Sagar. TAKE	1-0

Hurrengo jardunaldia

Eguzkitza Sagardotegia TAKE (2)
Digitarte Hoops (3)

SENIOR GIZONEZKOAK 2. MAILA

8. jardunaldia	
Easo Basket	56
Elorri-Aldapa	40



Igande goizean izan zen jokoan VII. Irristaka Indoor Sari Nagusia. LEYRE CARRASCO

Ikuskizunak irabazi du beste behin, Irristaka Indoor Sari nagusian

Tolosako Irristaka patinaje taldekoak gustura geratu dira aurtengoan txertatu dituzten berritasunekin, eta patinatzaileek eta ikusleek emandako erantzunarekin

Leyre Carrasco Tolosa

Irristaka patinaje taldeak antolatuta, VII. Irristaka Indoor Saria jokatu zen igande goizean Tolosako Usabal Kiroldegian. Bertan, Euskal Herriko patinatzaile onenariako elkartu ziren, eta lehia estua izan zuten elkarren artean. Irristaka taldekoek podiumeko lau postu lortu ahal izan zituzten, horietako bat erreleboka, baina ezin izan zuten lasterketarik irabazi.

Irristaka taldetik balantze ona egin dute, eta parte hartu zuten patinatzaileak gustura geratu zirela azaldu dute. Bestalde, ikuskizuna zuzenean ikustera joan zirenak ere gustura geratu zirela gaineratu dute. Polemika bakarra helduen errelebo proban izan zen. Finalurreko batean lehen bi postuak lortu zituzten Amaia eta Irristaka 1 taldeak deskalkifikatu egin baitzituen epaileak,

SAILKAPENAK

GAZTEEN MAILA, NESKAK

1. Uxue Sola Baigorri (San Juan)
2. Irantzu Arriaga Cenzano (Amaia)
3. Haizea Peralta Artakoz (Sakana)

GAZTEEN MAILA, MUTILAK

1. Oier Lara Dominguez (indep.)
2. Jon Urkizar Estibariz (Irristaka)
3. Ioritz Marques Herrero (Sakana)

SENIOR EMAKUMEZKOAK

1. Maddi Goya Anton (Sakana)
2. Uxue Barredo Uriarte (Desl.Vit.)
3. Eider R. de Arcaute Ochoa (D.Vit.)

SENIOR GIZONEZKOAK

1. Dani Garro Martinez (San Juan)

2. Ximon Villalobos Alvarez (Amaia)
3. Julen Urkizar Estibariz (Irristaka)

MASTER GIZONEZKOAK

1. Ekaitz P. de San Roman (Basroller)
2. Enrique Leiva Peña (Desliza Vit.)
3. Ilazki Zalakain Erbiti (Irristaka)

ERRELEBOAK, GAZTEAK

1. Amaia
2. Cantalagua
3. Desliza Vitoria

ERRELEBOAK, HELDUAK

1. San Juan
2. Desliza Vitoria
3. Irristaka 2

arau jakin bat ez betetzeagatik proban zehar.

Bestalde, Irristaka taldekoak gustura geratu dira aurtengo bi berritasunekin. Batetik, Master kategoria jarri dute lehen aldiz,

eta lasterketa politak ikusi direla aitortu dute. Era berean, luzapen handiagoko proba bat ere txertatu dute aurtun lehendabizikoz, eta hor ere lasterketa erakargarriak ikusi zirela azaldu dute.

Jokin Altunak ez du bihar Eibarren jokatuko binakakoan

Eskuin eskua minduta dauka amezketarrak; atzo goizean egin zuen proba Amezketako pilotalekuan, eta binakako txapelketako lehen partida ez jokatzea erabaki zuen

Erredakzioa

Lau eta Erdiko Txapelketaren finala lesioarekin amaitu zuen Altuna III.ak. Astebete berandua go, eskuin esku hori ez dago oraindik osatuta, eta bihar Eibar-ko Astelena pilotalekuan jokatzekoa zuen Binakako Pilota Txapelketaren lehen partidaren parte ez hartzea erabaki du. Atzo egin zuen proba Amezketako frontoian, eta eskua oraindik ez dagoela osatuta ikusi zuen. Probaren ondoren, osaketa prozesuarekin jarraituko duela adierazi zuen pilotari amezketarrak: «Masajeekin jarraituko dut eta bigarren jardunaldirako beste proba bat egingo dut. Binakako txapelketa jokatzeke gogotsu nago».

Jokin Altunak Tolosarekin jokatu behar zuen bihar, Eibarko Astelena pilotalekuan. Bere lekua Elezkano II.ak hartuko du lehen jardunaldi horretan, Elordi-Zabaletaren aurka. Bigarren jardunaldiko partida abenduaren 6an du Jokin Altunak, Tolosako Beotibar pilotalekuan.

PEÑA ILAK, LEHEN PUNTUA

Binakako Pilota Txapelketaren lehen jardunaldiko zenbait partida jokatu dira, eta lehen mailan zein promoziokoan, Peña II.ak bakarrik irabazi du. Jakak lehen



Peña II.ak Beotibar pilotalekuan, Iztuetaren debuteko partidaren irudia. I.G.L.

mailan, eta Elizegik eta Iztuetak promoziokoan, galdu egin dute.

Peña II.ak Beotibar frontoian jokatu zuen herenegun arratsaldean, eta Mariezkurrena II.aren batera 15-22 irabazi zion Urrutikoetxea-Albisu bikoari. Jaialdi berean jokatu zuen Iztuetak tolosarrak, promozio txapelketan, bere lehen partida jokatuz profesionalekako txapelketa batean. Parekatua izan zen partida markagailuari dagokionez, baina azkenean Iztuetak eta Alberdik galdu egin zuten 17-22 Larrazabal eta Eskirozen aurka. Berez Iztuetaren aurrelaria Agirre da, baina Alberdik ordezkatu zuen.

Jakak ere ezin izan zuen lehen puntua lortu binakakoan, tanto batengatik bakarrik galdu baitzuen Arangurenekin batera Laso-Imaz bikoaren aurka. Bartzelonan jokatu zuten partida hori larunbatean. Jaialdi berean parte hartu zuen Elizegik promozio mailako txapelketan, eta Zubizarreta III.aren batera 22-13 galdu zuten Bakaikoa eta Morgaetxebarriaren aurka.

Bihar Astelena pilotalekuan jokatu diren partidekin osatuko da bi mailatan lehen jardunaldia. Hasi besterik ez dira egin binakako txapelketak, ligan hamalau jardunaldi jokatu baitira.



Laskorain eta Teep Tolosala taldeen arteko derbiaren une bat. ENERITZ MAIZ

Berdinketarekin amaitu da derbia

I. Garcia Landa Tolosa

Laskorain eta Teep Tolosalak bina berdindu dute, Tolosako Usabal kiroldegian jokatutako partidaren. Bi aldiz aurreratu ziren kanpokoak markagailuan, baina partidaren azken txanpan berdintzea lortu zuen Laskorainek. Puntu bana jaso dute beraz bi taldeek, eta egun Laskorain laugarren postuan dago sailkapenean, 18 punturekin, eta Teep Tolosala hamargarren postuan dago, 13 punturekin.

Lortutako puntua positibotzat hartzen du Mikel Juaristi Laskorain taldeko jokalaria: «Nahiz eta sailkapena eskuan hartuta faboritoak gu izan, derbiak oso lehiatuak izaten dira. Beraiek atzean geratuz oso ondo defendatu zuten eta guri kosta egin zitzaigun min egitea defentsa itxi horren aurrean». Meritu guztia ematen dio Juaristik aurkariei egindako lanagatik. «Azken lau minuturen faltan atera ziguten txartel gorri horrek min handia egin zigun, eta gero atezain-jokalaria aterata lortu genuen parti-

da berdintzea». Juaristik gaineratu duenez, lortutako puntuak sailkapenerako asko ez die balio, baina ikusita nola joan zen partida eta punturik gabe geratzeko arrisku handia izanik, balekatzat hartu dute.

Teep Tolosalako Martin Lakunza jokalaria beraien planteamendua argi zutela azaldu du: «Lan handia egin behar genuela atzean eta gure aukerak izango genituela. Ezin genuen oparirik egin eta horretan saiatu ginen». Atzean ondo itxi zirela, eta Laskorainekoak ez zeudela eroso eta ez zituztela gol aukera gehiegirik sortu gaineratu du. Bigarren zatian ere planteamendu berarekin atera ziren Teep Tolosalakoak, «gehiago estutzen» saiatuz. Laskorain jokalaria bat gutxiagorekin geratu zenean, aprobeztatu egin zuten eta aurretik jarri ziren berriro. «Pena da beraiek azken minutuan berdindu egin izana», esan du Lakunzak. «Azkenean kontentu gaude mailako talde indartsuenetako baten aurka puntu bat lortu dugulako bere etxean».

Hilberriak eta urteurrenak

Ataria jarrita Urola Kostako eta Goierriko Hitzetan DOAN

hilberriak
eskertzak • urteurrenak

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943 65 56 95
Asteleneetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu
Ostegunetan 11:00k arte hartzen ditugu



Isabel Cintero
Pozo



Beti gogoan izango ditugu
elkarrekin egindako
irteeratxoak.
Agur Isabel, maite zaitugu.

Zure lagunak

ZARAUTZ, 2022ko azaroaren 29an



Luis Mari
Albisu Arruti
'Koskorri'



Zure duintasuna dugu eredu,
zure oroitzapena bidelagun

sortu Tolosako Sortu

TOLOSA, 2022ko azaroaren 29an



ASTEARTEA, 2022KO AZAROAK 29
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezera arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



Ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Ballarain,
Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Edoain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta,
Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



ASTEARTEA 29

AGENDA

Deialdiak

Alegia. Adinekoek erorketak ekiditeko aholkuak, 10:30ean Zinean.
Berrobi. 17:00. Emakumea ahalduztentopaketa. 18:00. La otra historia antzerkia. 18:15. Merienda Erroizpen.
Irura. Zure etxeak energia galtzen du? tailerra, eskolan, 18:30ean.
Tolosa. Lehen sorospen ikastaroa, Amaroako Auzoetxean, 18:30ean.
Tolosa. Erradikalak liburua aztergai, kultur etxean, 19:00.
Villabona. Euskararen historia soziala Tolosaldean (1833-1936), Su-bijanan, 18:30ean.

28 KANALA

08:00. Kirolak Tolosaldean; **11:30.** Gaurkoan Tolosaldean; **13:30.** Gaurkoan Tolosaldean; **19:00.** Elkarriketap (Goiatz Urkijo); **21:30.** Gaurkoan Tolosaldean; **22:00.** Xexili kontzertua

ATARIA IRRATIA

09:00. Eguraldia. Iker Ibarluzea;
10:00. Patxadaz. Elkarriketak;
12:30. Pasahitza. Albistek; **14:00.** Telesailak. Alain Rekondo; **18:00.** Amalurra. Ingurumena; **20:00.** Es-kuahaldunak. Koldobika Jauregiri elkarriketa.

FARMAZIAK

Gaur

VILLABONA. Egunekoa. J. M. Sanchez. Kale Berria, 34. 943 69 1130.
TOLOSA. Gauekoa. L. A. Morant. Zabalaretalorategiak, 1. 943 67 38 49.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Giro kaxkarra. Egun osoan hodeiak nagusi izango dira eta zaparrada giroa izango dugu. Zaparradak sarri botako ditu eta tarteka mardulak izango dira, bereziki goizean. Azken orduetan euri gutxiago izango da. Tenperatura maximoak ez dira 10-12 gradutik pasako.

Bihar. Giro lasaia. Goizean hodei ugari agertuko da zeruan, baina ateri eutsiko dio. Arratsaldean hodeiak saretuago agertuko dira eta ostarre politak izango ditugu. Haizea aldakor ibiliko da, tarteka ekialdeko ukituarekin. Tenperatura pixka bat igoko da, 11-13 graduan joz goia.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esan- en eta iritzien erantzukizunik.

Bizikidetza lantzeko ekitaldiak, Tolosan

‘Tipularen sehaska kanta’ dokumentala eta ondoren solasaldia izango da bihar, Leidor aretoan, 19:00etan hasita

Erredakzioa Tolosa

Bizikidetza sustatzen izenburupean, ekitaldi sorta antolatu du Tolosako Udalak. Azaroan izango da lehena, eta otsailera arte filmak, solasaldiak nahiz hitzal- diak izango dira.

Olatz Peon Tolosako alkatearen esanetan, «bizikidetza elkarrekin jorratu beharreko bidea den neurrian, ordezkari politiko- ok gure arduren eremuan dagoe- na egiten jarraitzeko konpromi- soa berretsi nahi dugu». Bestalde, Andu Martinez de Rituerto EH Bilduko kideak esan duenez, bere aldetik, ondorengo adierazi du: «Bizi izandako indarkeria eta giza eskubideen urraketek, errepikatu nahi ez dugun bidea erakutsi eta bizikidetza justu eta osasuntsuaren alde lanean jarraitzeko indarra ematen digu».

Joxe Mari Villanueva PSE-EEko zinegotziak ekimenaren helburua memoria, egia eta bizi- kideztaren inguruko elkarriketa «zabala eta zintzoa» gizartera- tzea dela azaldu du.



Martinez de Rituerto, Peon eta Villanueva egitaraua aurkezten. A. IMAZ

Lehen ekitaldian, *Tipularen Sehaska kanta* dokumentala eta solasaldia izango da, bihar, hila- ren 30ean, Leidorren, 19:00etan. Presoek medikuarengana joate- ko, diagnostiko bat egiteko edo tratamendu bat jasotzeko dituz- ten zailtasunak bistaratzen ditu.

Abenduaren 14an, *Los campos de concentracion de Franco* hitzaldia izango da, Carlos Her- nandez De Miguel ikerlariaren eskutik, udaletxean, 19:00etan.

Urtarrilaren 18an Jose Miguel Etxeberria Alvarez *Naparra*-ren desagertzearen inguruko ikerke-

ta eta eragindako bizipenak jaso- tzen dituen *Bolante baten histo- ria* filma eta solasaldia izango da, Leidorren, 19:00etan.

Otsailaren 1ean, *Hirugarren koaderno* film laburra eta *Bi ar- nas* dokumentala izango dira Leidorren, 19:00etan. Lehenak Yoyesek 1980 eta 1985 bitartean, ETA utzi eta Mexikon erbestera- tuta zegoela idatzi zuen egunka- riaren zati batzuk jasotzen ditu. Bigarrenak Iratxe Sorzabalen eta bere ama Mari Nieves Diazen historia kontatzen du. Tortura- ren gaineko testigantza da.



BERASTEGI – ATEGI II

12 ETXEBIZITZA TASATU
3 LOGELA ETA 2 BAINUGELA
GARAJE ITXIA BARNE
EGIN ZURE ERRESERBA!

175.476€-tik hasita



CONSTRUCCIONES ABURUZA, S.L.

Informazioa:
KALE BERRIA 48, BEHEA
20.150 VILLABONA

www.aburuza.com
komertziala@aburuza.com
943 69 02 97/607 445 484